

EAE-ANV: sorrera eta ibilbidea errepublika-garaian (1930-1936)

Aitor Larrañaga Uranga
Psikologian eta Soziologian lizentziatua

EAE/ANVrena izan zen Sabino Aranaren abertzaletasun klasikoa berriztatu eta doitzeko lehenengo saioa. Bigarren Errepublikako urte gora-beheratsuetan, jeltzaleak zein errepublikazaleak mugiarazten saiatu zen; batzuegandik eta besteegandik onena hartuta, euskaldunon autogobernurako bultzada erabakigarria ematea izan zuen xede, pragmatismo-ariketa betean. Nahiz eta arrakasta gutxiko talde politikoa izan, bidea markatu zuen, bai lehenengo Eusko Jaurlaritza osatu ahal izateko prozesuan, bai alderdi politiko abertzaleen modernizaziorako noranzkoan.

Errepublikako tarte horretako gertaera nagusien harira, EAE/ANVren parte-hartzea eta eragina azaldu eta aztertu nahi izan da artikulu honetan. Bukaeran, hainbat hausnarketaxo ere egiten dira ikuspegi sinkroniko batetik.

GAKO-HITZAK: II. Errepublika · Abertzaletasuna · Berritzailea · Ezkerra.

EAE-ANV: origin and history during the Second Republic

EAE/ANV did the first attempt to renovate and fortify Sabino Arana's classic nationalism. In complicated years of the Second Republic, EAE/ANV tried to move to nationalists and republicans; it took the best things from ones and others; its objective had been to give one important thrust to get autogovernment for Basque people, like a pragmatic-exercise. Although it is a political group with few success, it took one way for the process to get the first Basque Government and for the way in the modernization of the nationalist political group.

Remembering the event of that period of Republic time, in this article is wanted to explain and studied the participation and the influence of EAE/ANV; at the end of the article, they do some little reflexions from a synchronic point.

KEY WORDS: Second Republic · Basque nationalism · Innovative · Left.

Jasotze-data: 2012-11-21. *Onartze-data:* 2013-02-18.

Sarrera

XX. mendeko hirugarren hamarkada erabakigarria da euskaldunon historia garaikean: garai horretan hasi ziren itxura hartzen aurrerago finkatuko ziren joera eta ikuspegiak. Ildo horretatik, ezin aipatu gabe utzi Eusko Abertzale Ekin-tza/Acción Nacionalista Vasca-ren (EAE/ANV) ekarpen eta ibilbidea.

Egun ezagutzen dugun Euskal Herriak abiapuntua du, neurri handi batean, 1930eko hamarkadan hasiera izan zuen aldatze- eta modernizazio-prozesuan: industriaren gero eta garrantzi handiagoa; zerbitzu publikoen (hezkuntza, osasuna) potentzialtasunaren iragarpena; euskara eta euskal kulturarekiko atxikimendu eta aldeketasun soziala; eskubide indibidualen aldarria...

EAE/ANVren historia aitzakia eta tresna, biak batera, izango ditugu urte haietan barnako bideari ekin eta aro hura hobeto ezagutu, ulertu eta baloratzeko. Ondoren, datuak bilduta, errazago jo ahal izango dugu hausnarketatik.

Kronologiaren eta gertakarien arteko elkarrenginetik ardaztuko dugu lan honen nondik norakoa: abertzaletasuna eta haren baitako aldaketa erabakigarriak izango ditugu gako nagusietako bat. Bestea, abertzaletasunaren proiektu politi-koa gauzatzeko lanak eta arazoak. Bi gurpilon gainean ibiliko zaigu EAE/ANVren lokomotoratxo leku-denborazko koordinatu jakinetan: Hego Euskal Herria, Espainiako Bigarren Errepublikaren aldia. Lehendabizi, urte haietara inguratzen saiatuko gara, aurrekariak-eta aipatuz.

Nork ez die entzun aitona-amonei edo gurasoei aztergai dugun garaiari buruzko kronikei zerien itxaropena eta miresmena¹? Franco jeneralak eragindako kolpe militarrek, baina, errotik moztu zituen antzematen hasiak ziren berriztatze-eta bilakaera-haizeak. Horren ondorioz, hamarkada batzuk geroago arte itxaron beharra izan zen, delako modernizazioa gauza zedin²; gutxieneko normaltasunera iristeko, gogotik izerditu beharra izan zen. Berez zaila zirudien prozesua are zailagoa izan zen, diktadurako urte latz haietako errepresioa zela medio. Izan zitekeenaz jardunda, ordea, ez goaz inora. Bakar-bakarrik aipatu Errepublikaren garaiko EAE/ANVren ahaleginak oinarrizko eginkizuna izan zuela euskal esparru soziopolitiko eta ideologikoaren garapenaren norabidean. Mugarri funtsezko izan zen gure herriaren 30eko hamarkadako eraldatze- eta egokitze-saioan. Eta EAE/ANVren aitzindaritzza-zeregina da, hain zuzen ere, lan honen bidez nabarmendu nahi dena. Gaur egunerako ere jardunbide egokiak eta zentzuzkoak eskaini diezazkiguke. Zergatik ez?

1. Euskal abertzaletasunaren sorrera eta aldaketa nagusiak: testuinguru historikoa

1.1. Lehenengo zantzuak (1876-1930)

1876ko Bigarren Gerra Karlistaren amaierak ziklo baten bukaera utzi zuen age-rian: Foruen aboliziotik, *Kontzertu Ekonomikoa* geratuko da foru-burujabetzaren

1. Iragan oro ederragoa omen. Dena dela, gure imaginario edo kontzientzia kolektiboan txertatuta geratu da urte haiei buruzko halako loriazko laino erdi epikoa, gerrak eragindakoa, neurri handi batean.

2. 40 urte geroago hasi zen horma arrakalatzen: 1977an izan ziren Errepublikaz geroztikako lehenengo hauteskunde libreak edo.

aztarna gisa. Foruak galduta, euskaldunon autoestimuan jasandako kolpeak lur jota eta noraezean, heldulekurik gabe utzi zituen.

Industrializazioaren kariaz izan ziren migrazio-mugimenduek eta gizarte-aldaketa handiek ekarri zuten Euzko Alderdi Jeltzalea/Partido Nacionalista Vasco (EAJ/PNV) alderdia sortzea³. Sabino Arana idazle eta politikoa bizkaitarrak erein zuen 1895ean alderdiaren hasia. Urte batzuk lehentxeago hasia zuen jardun politikoaren⁴ erpina izan zen. Foru Berreskurapena, katolizismoa eta tradizioa izango ditu ideologia-ezaugarri behinenak, hain zuzen ere, karlismoaren txingarretatik altxatu zen alderdi berriak. Lehenengo aldiz formulatu zen *euzkotarron aberria Euzkadi* dela; sinbolo aldetik ere, iruditeria abertzalea sortu eta hornitu egin zen⁵. Ideologia-esparru berri bati eman zitzaion hasiera, gerora funtsezkoa izango zena gure herriaren historia ulertzeko: abertzaletasuna.

Ez zen Euskal Herrian bakarrik zabaltzen ari kultura gutxituen eta nazio-eman-tzipazioaren aldeko mugimenduen oihartzuna: Katalunia eta Irlanda erreferentzia eta ispilu izan ziren abertzaletasunarentzat, hasiera-hasieratik⁶. Lehenengo Mundu Gerra bukatuta, Wilson presidente estatubatuarra bultzatuta, nazionalitateen printzipioak leku berezia hartu zuen errealitate eta agenda politikoan, autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapenetik⁷. Printzipio hari jarraiki sinatu zen Versalleseko bake-hitzarmena. Hori izan zela kausa, estatu asko sortu ziren Europan, Austria-Hungariako Inperioaren suntsipenaren ondorioz: Austria, Hungaria, Jugoslavia, Txekoslovakia. Bitartean, Espainiako Erresuman ere mudantzak izan ziren, handiak hauek ere: borbondarren dinastia zenbait fasetatik eta arazotatik igaro zen bere burua finkatzearen —bi alderdiren sistema, 1898ko porrota eta kolonien galtzea⁸, industrializazioaren hasiera, Marokoko Gerra—. Hala, Alfontso XIII.ak Primo de Riveraren Diktadura jarri behar izan zuen konfiantza, egoera sozial zailari aurre egiteko (gatazka sozialak, sindikatuen indarra, Marokoko Gerrak eragindako egoera larria —Annualeko Hondamendia—) eta ordenari eusteko.

3. Alde batera utziko ditugu Larramendi, Xaho, Campi3n eta aitzindariak; izan ere, Arana izan zen lehenengo talde abertzale antolatuaren sortzailea.

4. 1892an eman zuen argitara *Bizkaya por su independencia*; 1893an, Larrazabaleko diskurtsoa egin zuen; 1894an, lehenengo batzokia sortu zuen, Bilbon.

5. Euzkadi izena bera eta ikurrina.

6. Katalunian, 1892an, Manresako Oinarriak aurkeztu ziren katalanismo politikoaren bultzadaren ondorioz: 1714 baino lehenagoko Kataluniako konstituzioetan aurkitu zuen iturria botere politikoa berreskuratu nahi zuen mugimendu honek. Aurrerago, 1902-1903ko Sabinoren biratze autonomistan Kataluniako Liga Regionalistaren eragina ikusi nahi izan da. Irlandari dagokionez, bertako mugimendu abertzalearen ibilbidea oparoa baino oparoagoa izan zen. Ez dezagun ahanztz, gainera, erlijio katolikoaren zeresana Irlandan.

7. Ikusi Agirrezkuenaga, 2005, 2006. *La patria lejana* liburuan (Taurus), Juan Pablo Fusi nahiko kritikoa azaltzen da Wilsonen irizpideekin. Aurreiritzi politikotik asko du, nire ustez. Estatu handien balizko izaera demokratikoaz dihardu. Espainiako estatuko intelektualen artean ohikoa den jarrera, bestalde.

8. Roosevelt presidente estatubatuarri zorion-telegrama bidali zion Sabino Aranak, Kubari independentzia emateagatik. Horren ondorioz, Sabino espetxeratu egin zuten. Kartzelatik, independentzia baztertu eta Espainiaren barruko autonomia baten alde egin zuen: Liga de vascos espa3nolistas sortzea proposatu zuen EAJ/PNVren kaltetan. Erraz irudika daiteke espainiar nazionalismoaren izaera itxia eta oldarkorra; areago, gainera, gerra galdu ondoren.

1.2. EAJ/PNVren bateratze-prozesua: Comuni3n + Aberri

Sabino Aranak sortutako alderdian, segituan azaltzen dira *pendulari*⁹ dagozkion bi posizio klasikoak, Aranaren beraren bi aroei dagozkienak, bestalde: moderatua edo posibilista, batetik; erradikala eta utopikoagoa, bestetik. Alderdiaren barruan, bi posizioek hartu zuten lekua 1907tik aurrera: *Aberritarrak* —*Aberri* astekariaren inguruan biltzen zirenak— Luis Aranaren gidaritzapean, Sabinoren ideologia independentistaren oinordekoak; *Euskalerrriakoak* —Ramon de La Sota, Chalbaud, Horn—, Ierro autonomistaren aldekoak. Lehenengo Mundu Gerraren inguruan izandako desadostasunen haritik¹⁰, De la Sotaren taldeak *Comuni3n Nacionalista Vasca* izena hartu zuen. 1921ean, Aberriko partaideek eta Euzko Gaztedik *Comuni3n* utzi zuten, eta Aberri alderdia sortu zuten: gertatu zen zatiketarik 1930 arte iraungo zuen; bi ikusmolde eta estrategia ezberdinen isla izan zen.

Nahiz eta Primo de Riveraren Diktaduran adierazpen politiko asko eta asko debekatu ziren, ez ikusiarena egin zuten mugimendu abertzalea mugitzen zen esparru askotan: lan handia egin zen kultur eta folklore-munduan, talde eta elkarte ugariaren eskutik. Gipuzkoa eta Bizkaiko apaizteriak zeregin funtsezkoa jokatu zuen euskal kulturaren suspertze horretan. Mendizale-talde anitzek ere bide eman zioten euskal abertzaletasuna zabaltzeari, Euskal Herriko mendi eta herrietan zehar. Izan bazen jende-multzo nahikoa diskurtso euskaltzalea eta abertzalea jaso eta xurgatzeko. Horrela, ez zen batere zaila izan 1930eko azaroan bi joerak batzea Bergaran izan zen kongresuan, aurreikusten zen Diktaduraren bukaeraren testuinguruan. Indarrak eta eraginak biderkatzeko eta etekin politiko eta soziala ateratzeko modu logikoena zen. Batasuna, bada, PNVren izenaren pean egin zen, eta Sabino Aranaren doktrinaren, hots, JEL (Jaungoikoa Eta Lege Zaharra) printzipioen arabera gauzatu zen: EAJ/PNVren ideologia klasikoari lotu zitzaion, berriz ere, bi puntuon bueltan: alderdiaren izaera konfesional eta katoliko sutsua, eta 1839 baino lehenagoko egoeran —Foruen Berrezarpena— jartzea etorkizuneko eredia, eskubide historikoen aldarrikapenaren haritik. Gainera, arrazari eman zitzaion garrantziak xenofobia-kutsu nabarmenez markatu zuen. Eutsi egin zitzaion, halaber, egituratze konfederalari Euskal Herriaren barne-antolaketa begira.

2. EAE/ANV

2.1. EAE/ANVren jaiotza-irizpide ideologikoak eta jasotako eraginak: San Andreseko Manifestua (1930-XI-30)

Orain arteko guztia beharrezkoa zaigu, beste alderdi baten jaiotza-mugimenduak mapan kokatzeko.

Euzko Alderdi Jeltzalearen bat egiteko prozesuan, *Comuni3n*-eko sektore erreformazalea, zuzendaritzako batzuk eta *Euzkadi*¹¹ egunkariko hainbat partaide

9. Ikusi De Pablo, Mees eta Rodríguez Ranz, 1999.

10. Comuni3n-eko jarraitzaileak Ingalaterraren aldekoak ziren. Luis Aranaren aldekoak, berriz, Alemania zaleak. 1916ko Irlandako altxamenduak areagotu egin zituen ika-mikak: independentistak versus autonomistak. Gero aipatuko dugun Aberriko Eli Gallastegi izan zen Irlandaren eredia sutsuki defendatu zuena.

11. *Euzkadi* egunkaria Euzko Alderdi Jeltzalearen agerkari ofiziala izan zen 1913tik 1937ra arte. Bertan idatzi zuten Lauaxetak, Lizardik, Aitzolek eta Orixek, besteak beste.

garrantzitsu ez zetozen bat alderdi bateratuaren estrategia-ildoarekin, baina indar gutxi zuten militantzian. Porrot egin zuten, nahiz eta saiatu Bergarako kongresuan irizpide politikoak modernizatzen —izaera katoliko eta konfesionala, zein ikuspegi konfederala desagerrarazi nahi—, eta ez ziren alderdi barruan sartu.

Bergarako kongresutik 15 egunera batu egin ziren hainbat iturritako ur-emariak —*Comuni6n*-eko sektore hori, *Aberr*-tik zetozen hainbat, Barakaldoko Euzko Gaztedi, Madrilgo euskal ikasleak, eta independente batzuk— beste alderdi bat sortzeko: Eusko Abertzale Ekintza/Acci6n Nacionalista Vasca (EAE/ANV). Irizpide erreformistak bultzatu nahian, *Comuni6n*-ena zen *Euzkadi* egunkariak martxan jarritako galdeketak ere izan zuen bere garrantzia prozesu honetan guztian.

Alderdiaren jatorriaren beste ezaugarri garrantzitsu bat, honakoa izan zen: nazionalitate historikoen nortasuna errespetatzen zuten Espainiako ezkerreko alderdi errepublikanoekin eta sozialistekin aliantzak egiteko asmoa, Errepublika eta autonomia lortzearen. Abertzale eta ez-abertzaleen artean elkarlana landu nahi zen, errezeloak eta ezinikusiak alde batera utzita.

San Andreseko Manifestua izan zen EAE/ANVren jatorrizko egitasmoa, eta 1936ko ekainera arte izan zen indarrean. Funtsezko ideologia-oinarriak Euskal Herriaren nazio-nortasunaren aldarrikapena eta autogobernurako eskubidea dira. Egitasmo politiko moderatua da, eta 1930 arte berezita zebiltzan bi ideologia —abertzaletasuna eta liberalismoa— uztartzeko saioa dugu.

Humus honetan guztian, EAE/ANVk eragin handia jaso zuen Kataluniako abertzaletasunaren ildo errepublikazaletik: Esquerra eta Accio Republicana. Euskal Herrian antzeko zerbait lortu nahia izango du jomuga. Kataluniako dinamismo eta modernotasunaren ispiluan ikusi nahi zuen Euskal Herria alderdi abertzaleak.

Alderdi berriak sorreratik izan zituen oso harreman txarrak EAJ/PNVrekin, auzi ideologiko edo politikoengatik ez ezik, baita Bilboko prentsa abertzalearen (*Euzkadi* eta *La Tarde*) kontrol politikoagatik ere. Izan ere, EAE/ANVkoa zen Ortuetaren esku zeuden egunkari horien akzioak, eta ez zegoen prest EAJ/PNVk bere egin zitzen. Ondorioz, berealdiko borroka izan zen bi alderdien artean, hainbestearinokoa, non jeltxideek akzio horietako batzuk lapurtu ere lapurtu zituzten¹².

Ideologiari dagokionez, EAE/ANVk ez zuen teoriko handirik izan. Batik bat, EAJ/PNVtik bereizten saiatu zen. Abertzaletasunaren munduan haustura teoriko sakona ekarri zuen. Honako hauek ditugu alderdi berriak plazaratu zituen puntu esanguratsuenak:

- **Abertzaletasun ez sabindarra.** «Aberri eta askatasuna» eta «Euskadi libre gizaki libreekin» dira lelo nagusiak. Abertzaletasun liberala *versus* abertzaletasun tradizionala. Hala ere, EAE/ANV ez da Sabinoren aurkakoa: goretsi egiten du euskal abertzaletasuna sortzeagatik, baina doktrinatik puntu bat bakarrik egiten du bere: *Euskadi da euskaldunon aberria*. Arrazaren gaian —Aranaren arabera, puntu nagusia—, ordura arte euskal abertzaletasunaren osagai behinena zen euskal arrazaren funtsezkotasun laudatuaren

12. Ikusi De La Granja, 1986.

eta *antimaketismo*aren aurkako ageri zaizkigu ekintzaileak. «Ez dio axolarik nondik zatozen, nora goazen baizik», diote. Halaber, kritikatu egiten zuten Foruak eta tradizio historikoa etengabe aldarrikatzea: Euskal Herriaren libre izateko eskubidea ez da hainbeste oinarritzen bere iragan historikoan; orainaldiko borondatea garrantzitsuagoa da. Ondorioz, autodeterminazio-eskubideari atxikitzen zaizkio eta autonomia-estatutua da horretarako lehenengo urratsa. EAE/ANVn, independentziazaleak, federalistak eta autonomiazaleak elkarrekin ziren arren, denek ematen zioten funtsezko garrantzia estatutua lortzeari.

- **Erlijio-gaietan: ez-konfesionala.** Alderdiaren sortzaileak katolikoak badira ere, ez dute onartzen jeltzaleen integrismo katolikoa, ez izaera konfesionala: erlijioa eta politika ez nahastearen aldekoak dira. Ez dute jokabide laikoa, ordea, eta ez dira antikerikalak; horretan, aldendu egiten dira gainontzeko erakunde errepublikazaleetatik. Hala ere, jeltzaleek *jainkogabe* deitzen zieten.
- **Errepublika eta liberalismoa.** Euzko Alderdi Jeltzalea neutrala izan zen 1930-31n Espainian izan zen Monarkia/Errepublika auzian, interesatu ez balitzaio bezala. EAE/ANVn, ordea, hasieratik hobetsi zuen argi eta garbi Errepublika, eta horren alde borrokatu zen. Errepublikazaletasun nabarmen eta tinkoa izan zuen, baita agintari errepublikanoek kale egin ziotenean ere. Irtenbidea Errepublika federal baten barneko autonomia zabalean ikusten zuen. Liberal izateaz harro zeuden, bestalde: tolerantzia, kontzientzia-eskubidea, giza eskubideak... euren ideietan ezinbesteko dira. Ez dute irudikatzen aberriaren askatasuna herritarren askatasunik gabe. Autore batzuen irudikoz, garaiko Euskal Herriko alderdi errepublikazaleena izan zen.
- **Herrialdeen arteko batasuna: unitarismoa.** Alderdi berriak ez du onartzen Euzko Alderdi Jeltzalearen euskal lurraldeak konfederazio batean biltzeko guraria, eta Bilbon hiriburua izango zuen euskal estatu batu eta unitarioa proposatu zuen. Euskal Herriaren lurralde-zatiketari leporatzen zioten bizi zen egoera txarraren zio nagusietakoa. Lurraldeen arteko barne-kohesioa indartzea jotzen zuten etorkizuneko lan-esparru beharrezkoenetakoa bat euskal estatuaren osatze bidean. Prest zeuden, gehienera ere, eskualdeetan oinarritutako deszentralizazio administratiboa onartzeko.
- **Gizarte-mailako ideologia.** Klaseartekoa da alderdi ekintzailea, eta ez du gizarte-mailako programarik izango 1936ra arte. 1933an hainbat puntu anti-kapitalista eta sozializatzaile ageri dira, eta alderdiko sektore batek (Areitioaurtena, Tellagorri) sindikalismo iraultzailearen aldeko aldarria egin zuen. Baina gehienek ez zuten nahi EAE/ANV ezkerreko klaseko alderdia izatea. 1936. urtean, ordea, bestela izango da, aurrerago ikusiko dugun bezala. Arestian esan bezala, arrazakeria jeltzalearen aurka argi azaldu zen, eta langile emigranteak bere baitan integratzen saiatu zen (Barakaldo, Pasaia).

2.2. EAE/ANV martxan: partaideak eta ezaugarri soziologikoak. Zabaltze-prozesua eta eragina

Alderdi ekintzailearen hastapeneko bultzatzaile eta burukide nagusiak — Ortueta, Urrengoetxea, J.I. Arana eta J.D. Arana—, *Comuni3n*-eko partaideak

izan ziren. Burgesia txikitik zetozen, ogibide liberala zuten eta ekonomikoki maila onekoak ziren. Hala ere, baziren lursail handien jabeak eta hainbat enpresari¹³. Euzko Langileen Alkartasuna /Solidaridad de Obreros Vascos-eko (ELA/SOV)¹⁴ zenbait buruzagi ere izan ziren tartean.

Ez ziren erreforma sozial erradikalen aldekoak, eta abertzale moderatuak eta pragmatikoak ziren, ia denak bizkaitarrak, Ibaizabalen bi aldeetakoak, hain zuzen ere. Ia denek bizi eta lan egiten zuten Bilbon edo inguruetan.

La Granja historiagilearen arabera, alderdi ekintzaileak ez zuen ia indarririk izan nekazaritza-giroetan; Bizkai eta Gipuzkoako inguru urbano eta industrialetan lortu zuen oihartzuna, batik bat. Afiliatu kopuruari erreparatuta, milaka gutxi batzuk baino gehiago ez ziren izan Errepublikaren garaian. E. Renobalesen ustez, berriz, ez zen hutsala alderdiaren oinarrian langileek eta nekazariak zuten indarra.

Barakaldo eta Bilbo izan ziren alderdi berriaren gotorlekuak. Barakaldok esangura berezia izan zuen alderdi abertzalearen sorreran eta bilakaeran. Dena dela, Bizkaiko herri ugarietara zabaldu ziren (Sestao, Bermeo, Arrigorriaga, Portugalete, Trapagaran, Durango, Zornotza, Gernika, Basauri, Galdakao...), horietan indar gutxiago izan bazuten ere.

Gipuzkoan zehar ere izan zuen presentzia: Errepublika aldarrikatu aurretik, Donostian, Eibarren, Pasaian eta Arrasaten. Ondoren: Ordizian, Irunen, Tolosan, Oreretan eta Bergaran. Nemesio Mendizabal medikua, Emeterio Arrese poeta, J.M. Zabaleta, Jose Gabarain... dira Donostiako izen batzuk.

Arabana, Gasteizen bakarrik izan zituen jarraitzaileak; jeltzide ohien artean, batez ere: Luis Villanueva, Amadeo Garcia Salazar eta Luis Apraiz medikua... Iruñean, 1933 arte ez zen osatu alderdi ekintzailea. Izan ere, Araban zein Nafarroan, oso zaila izan zitzaien alderdi abertzaleei —baita EAJ/PNVri ere— finkatzea eta sendotzea.

Madriren ere izan ziren jarraitzaileak, unibertsitateko ikasleen artean, hain zuzen ere (Pello Irujo, Eleizalde...)¹⁵.

Nahiz eta indar gutxiko alderdia izan, ez zen koadro-alderdia izan, baizik eta masa-alderdia. Ez zen batere dogmatikoa izan, ezta zentralista ere, baizik eta demokratikoa eta deszentralizatua —ez da ahaztu behar irizpide unitaristak zituela—.

Prentsa izan zen urte haietan alderdien propaganda-bide nagusia. Garrantzitsua zen EAE/ANVrentzat egunkari bat izatea: 1933-34an *Tierra Vasca* argitaratu zuen. Arrazoi ekonomikoengatik desagertuta, gerra-garaian azalduko zen berriro. *Acción Vasca* aldizkaria ere izan zuen komunikabide.

13. Ikusi De la Granja, 1986, eta Renobales, 2005.

14. Bilbon, 1911n, EAJ/PNVren eskutik sortu zen euskal sindikatua. Ideologia sozial-kristaua zuen, eta estatu-mailako UGT eta CNT sindikatuen aurka lehiatu zen euskal langileak erakartzeko.

15. Gogorazki alderdiaren sorreran ere Madrilgo ikasle euskaldunen garrantzia.

Alderdiaren eraginari erreparatzen badiogu, eragin kualitatiboa azpimarratu beharko dugu: bide-urratzaile jardun zuen, mentalitate- eta praktika-berritzaile. Horixe erakutsi nahi dugu, hain zuzen, lan honetan.

3. Errepublika eta autonomia

3.1. Donostiako Hitzarmena, Errepublikaren aldarrikapena eta ondorioak

Donostiako Hitzarmena mugarri izan zen II. Errepublika bultzatzeari begira. Espainiako errepublikazaleek eta sozialistek bat egin zuten, 1930eko abuztuan Donostian sinatutako hitzarmenean: Monarkia eraitsi eta Errepublikari ekitea zen asmoa. Ordezkarikatalan eta galziarrak¹⁶ ere izan ziren egitasmoan. Hitzarmenaren gai zailenetakoa izan zen Kataluniaren autonomiari zegokiona. Hitz eman zen aurrera egingo zuela; nolabait, ziurtatu egin zen Kataluniak bere autonomia-estatutua izango zuela erregimen berrian. Gainera, bidea markatu zien hitzarmen horrek estatuko beste nazionalitateei autogobernuaren eskurapenean: onartu egiten zen autonomiarako eskubidea, ez zen gutxi garai haietarako. Bazirudien atea zabaltzen hasi zela.

Baina bilera horretan euskaldunik agertu ez izanak erabat baldintzatu zuen, txarrerako, euskal estatutuaren prozesua: katalanen kasuan ez bezala, oztopoa izan zen euskal autonomiarako urratsa emateko. Badirudi euskal ordezkari aber tzalerik ez zutela gonbidatu ere egin. Manuel de Irujoren¹⁷ arabera, gonbidatu balituzte ere, ez ziren joango, ziur aski. Jeltzaleek horri heldu zioten, ordea, Errepublikaren aldeko jarrera garbia ez hartzeko.

EAE/ANVk, bere aldetik, ez zuen parte hartzerik izan, jakina, handik hiru hilabete eta erdira sortu baitzen. Esku hartu ahal izan balu, oso bestelakoa izango zen, agi denez, ezkerreko alderdi espainiarren jarrera euskal abertzaletasunarekiko; izan ere, susmo txarrez begiratzen zioten EAJ/PNVren jarrera tradiziozale eta ez-liberalari¹⁸.

1931ko apirileko udal-hauteskundeek ekarri zuten, halabeharrez, Errepublika, indar errepublikazaleek hiriburuetan eta hiri handietan irabazi ondoren. EAE/ANVk bat egin zuen indar ezkertiar eta Erregearen kontrakoekin, eta parte hartu zuen *Bloke Errepublikazale eta Sozialista* zeritzon hauteskunde-aliantzan. Bizkaian nabarmena izan zen alderdi abertzalearen lana eta presentzia kanpainan.

Errepublika aldarrikatuta —Eibarren lehendabizi, estatu osoan—, bozkarioa nagusitu zen indar abertzaleen artean: autonomiarako lehen pausoak emateko garaia dela pentsatzen da. Garai berrien atarian zirela pentsatu zuten.

16. Kataluniatik Accion Catalana (Manuel Carrasco Formiguera), Acción Republicana de Catalunya eta Estat Català agertu ziren. Galizatik Federación Republicana Gallega. Lerroux, Azaña, Prieto eta Alcalá-Zamora ere izan ziren bilera erabakigarri hartan.

17. Politikari eta legegizon nafarra (1891-1981), EAJ/PNVren burukidea. Diputatu eta ministro izan zen Bigarren Errepublikan.

18. Ikusi De la Granja, 1986.

3.2. Autonomiaren aldeko borroka

Diputazioek beren esku zuten autonomia ekonomikoa Kontzertu Ekonomikoaren bitartez. Baina ez zen nahikoa, eta beste esparruetara ere zabaldu beharra ikusten zen. Izan ere, autonomia guztiz premiazkoa zen euskal erakundetza lortu eta egoera politiko, sozial eta kulturala onbidean jarri eta esparru egokiagoa eraikitzeko; amets baten antza zuten autonomia irudikatzeak, *nahi eta ezinaren lurraldea* zen¹⁹. Oinarrizko lehen tresna zen politikoki antolatzen hasteko. Saioak eginak ziren autonomia-marko gutxienerako bat izatearren. Baina Estatuaren horma gogorra jotzen zuten guztiek. Kezka eta ezinegon handia sortzen zuten espainiar botere-eremuetan edozein autonomia-nahikundek²⁰.

Errepublikarekin, baina, gauzak aldatu egingo zirela ematen zuten: Katalunian, 1931n, Generalitatea²¹ berrezarri zen²², eta bide eman zitzaion autonomiaren aldeko hauspoari, Donostiako Hitzarmenean adostutakoarekin bat; Eusko Ekintzak espero zuten Euskal Herrian ere behin-behineko gobernua osatzea, autonomia-estatutu bat ahalbidetzeko ekingo ziona. Ezerezean geratu zen, ordea, asmoa; Espainiako Gobernua ez zen fidatzen euskal alderdi nagusiaz, Euzko Alderdi Jeltzaleaz. Izan ere, izandako lehenengo hauteskundeetan, EAJK bat egin zuten Alderdi Karlistarekin eta eskumako indarrekin.

Nekazaritza-inguru euskaltzaleetan argia zen jeltzaleen eta karlisten nagusitasuna. Hori dela-eta, uko egin zion gobernuak aldundiak eratzeko foru-hauteskundeak deitzeari: erregimen berria kolokan ez jartzeko bermetzat jo zen, une egokiaren zain, betiere. Ondorioz, goitiki aukeratutako gestora-sistema asmatu zuten, aldundiak ordezkatzeko, gobernuarekin bat egiten zuten alderdiek. Har dezagun gogoan zein garrantzitsua izan den historikoki aldundien funtzioa autogobernuaren alorrean, erabaki horren muntaz jabetzeko²³.

Lehia politikoko jokaleku horretan, autonomia-estatutua eskuratzeko lasterketari eman zitzaion hasiera, baina bi bide hartuta horretarako: udalena edo gestorena. Estrategia-ezberdintasunaren oinarrian, beste irizpide batzuk ziren nagusi, ordea: antolamendu sozialaren defentsa, katolikotasuna eta autonomia-nahia ziren, indar kontserbadoreen ustez, zaindu eta sustatu beharreko esparruak;

19. 1914an, Katalunian diputazioen Mankomunitatea eratu zen autonomia-hastapeneko lanabes moduan. Horrek eraginda, Euskal Herrian ere antzeko erakundeak sortzeko proposamenak agertu ziren. Hala, 1917an, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Aldundiek autonomia-eskaera egin zioten Madrilgo Gobernuari. Alfonso XIII. erregeari, zein García Prieto lehen ministroari aurkeztu zieten: Foru Berrezarpena edo autonomia zabala eskatzen zen; betiere Espainiaren batasunaren barnean. 1919an, Romanonesek batzorde bat eratu zuen Euskal Herriko eta Kataluniako autonomiak aztertzeko. Autonomia-estatutu moduko bat taxutu bazen ere, Romanonesen dimisioak eta 1919ko Gorteen itxeak atzeratu egin zuten gaia beste garai egokiago batzuk iritsi arte. Ikusi Agirrezkuenaga, 2005, 2006.

20. Ikusi Agirrezkuenaga, 2005, 2006.

21. Generalitat: Kataluniako autogobernua politikoki antolatzen duen erakunde-sistema. 1716an desagerrarazi zen, Ondorengotza Gerraren ondorioz. II. Errepublikan berreskuratu zen.

22. Francesc Macià Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen 1931ko apirilaren 15ean. Espainiako Errepublikako behin-behineko presidente Alcalá-Zamorak lortu zuen katalanek atzera egitea Konstituzioa onartu bitartean. Ordainetan, Kataluniako Generalitatea onartu eta berrezarri zen, autonomiarako iragarpen eta lehen urrats moduan.

23. Gogorazi gaur egungo euskal erakunde-sistema: aldundien rola konstante bat da euskal erakunde-arkitekturaren historian. Horrezaz gain, ikusi Agirrezkuenaga, op. cit.

ezkerrak, berriz, jomugan zituen sistema errepublikanoa finkatzea, langile eta herri-klaseen bizimodu-baldintzak hobetzea, erlijio-askatasuna eta Eliza-Estatua bereizketa.

Estatutuaren aldeko ahaleginak jeltzaleak eta karlistak elkartu zituen, erlijioaren eta ordena sozialaren aldeko aterkian. Esparru sozial, ekonomiko eta erlijiosoan batasun ideologikoa zen. Baina ezberdintasunak itzelak ziren: alderdi jeltzalea, abertzalea ere bazen; Errepublikaren aldeko jarrera epela izanagatik, ez zen batere erregezalea. Karlistak, ordea, Errepublikaren aurkako amorratuak ziren, eta Foruen banderan babesten ziren.

3.2.1. *Eusko Ikaskuntzaren Estatutua (1931)*

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vasco-k (EI-SEV)²⁴ urte batzuk zeramatzan autonomiaren gaia lantzen. Errepublika aldarrikatuta, azkartu egin zituen azterketok, EAJ/PNVk sustatutako Alkateen Mugimenduak eskatuta. Udalek eta indar politikoek, oro har, ondo irizten zioten Eusko Ikaskuntzaren ahalegin eta nagusigoari, alderdi politikoen gainetik baitzegoen, eta izen ona eta prestigioa baitzuen. Ramon Madariaga abokatu errepublikazalearen aurreproiektu bat hartu zen lan-oinarri. Adituen arabera, saioa izan zen Foruak burujabetza-tresna gisa eguneratzeko. Honako oinarriok izan zituen Eusko Ikaskuntzak proposatu zuen estatutuak²⁵:

- Estatu-era federala zuen abiapuntutzat: Euskal Herria estatu autonomo gisa eratzen zen Espainiako estatu federalaren barnean. Soberania partekatu egiten zen Estatuaren eta euskaldunon artean.
- Euskal estatuak ere egitura konfederala izango zuen: probintzia bakoitzak autonomia zabala izango zuen euskal batasunaren barnean. Ildo horretatik, probintziek ere beren estatutua izango zuten. Nafarroa ere barruan sartzen zen.
- Probintzien arteko federalismo honen bitartez, probintzia-mailako zein maila orokorreko botere legegile eta exekutiboa gauzatzea zen asmoa. Herrialde bakoitzak ordezkari kopuru bera zuen Legebiltzarrean eta gobernuan. Euskal Kontseilu Nagusiko Batzorde Exekutiboa zen euskal estatuaren erakunde gorena.
- Euskal estatuaren gobernua ez zen herriak hauteskunde bidez hautatua. Aurreikusten zen probintzia-erakundeek aukeratzea eta kontrolatzea. Botere-banaketa ez zen, gainera, oso garbia eta demokratikoa: botere legegileak ezin zuen botere exekutiboa behar bezala kontrolatu, ez zegoen eta, esaterako, konfiantza-botorik edo zentsura-moziorik.

24. Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos erakunde zientifiko-kulturala da. 1918an, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundiek sortu zuten «euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa». Arturo Campión ohorezko lehendakaria izan zen hasieran. Primo de Riveraren diktadurapean arazoak izan bazituen ere, Gerra Zibilean Ipar Euskal Herrira lekualdatu beharra izan zuen 1976ra arte (Wikipedia, 2012ko martxoan).

25. Ikusi De La Granja op. cit., eta Renobales op. cit.

- Euskal estatuaren ahalmenak oso handiak ziren, eta estatu federatu ohi-koenak baino askoz ere zabalagoak justizian eta defentsa-mailan —euskal-nafar miliziak—.
- Bi Estaturen arteko auzietarako, batzorde misto aldekoa aurreikusten zen.
- Itun Ekonomikoak edo *Kontzertuak* arautuko zituen Errepublikaren eta euskal erakundeen arteko harreman ekonomikoak.
- Baldin eta urtebete bazeramaten bertan bizi izaten, lortuko zituzten Euskal Herrian jaiotakoek eta seme-alabek euskal herritarren eskubide politikoak; bi urtebeteko egonaldia beharko zuten horretarako, ordea, bertan ez jaiotakoek.
- Euskara, gaztelania bezalaxe, hizkuntza ofiziala izango zen, lurralde euskaldunetako funtzionarioek jakin beharrekoa.

Izaera ia konfederala zuen autogobernu-egitasmo horrek oso autonomia altuko paisaia deskribatzen du: benetan tresna indartsua zen, eta bat egiten zuen, oro har, Euskal Herriaren gogo eta nahi nagusi eta historikoekin. Aurreproiektua burututa, mozioak aurkezteko epea ireki zen. Prozesu horretan Lizarrako Estatutuak hartu zuen lekukoa.

3.2.2. Lizarrako Estatutua (1931)

Lizarrara deitu zuen Jose Antonio Agirrek²⁶ zuzentzen zuen Alkateen Mugimenduak, Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektua eztabaidatu eta onestera. Bertan hainbat aldaketa egin zitzaizkion, hona garrantzitsuenak²⁷:

- a) Eliza eta Estatuaren arteko harremanak Euskal Gobernuaren esku egotea.
- b) Euskal Herrian ez jaiotakoek 10 urtez bizi behar izatea bertan, eskubide politikoen jabe izateko.
- c) Ezabatu egin ziren Espainiako Parlamentuari eta Errepublikaren Konstituzioari buruzko aipamenak. Aldi berean, Foru Berreskurapen osoa aipatzen zen.

Aldaketa horien bidez, azpimarratu egiten zen euskal soberania, eta ezabatu egiten ziren Errepublikarekiko loturak; halaber, indartu egin nahi ziren udalen protagonismoa zein Nafarroaren pisua.

Udalen egitasmo autonomiko hori ez zen, bada, Eusko Ikaskuntzarena: bi estatutu ezberdin ziren, alde politiko esanguratsuak zituzten-eta elkarren artean.

Dena ez zen, ordea, adostasuna eta bat egitea: ezkerreko alderdi zein udalak ez ziren azaldu Lizarrako Asanbladara, eta errefusatu egin zuten Lizarrako Estatutua, klerikaltzat eta eskumakotzat joz. Donostian elkartu ziren, euren aldetik; bi bloketan bananduta ageri ziren, beraz, alderdi politikoak eta gizartea: udalen

26. Lehendakari izan aurretik, Athleticeko jokalaria izan zen. Getxoko alkate ere izan zen, 27 urte bakarrik zituela. Hortik, estatutuaren aldeko Alkateen Mugimendua eratu zuen. Horren eskaeraz ekin zion Eusko Ikaskuntzak 1931ko estatutu-proiektua idazteari. Madrilgo Gorteetarako 1931ko hauteskunde konstituziogileetan diputatu izatea lortu zuen.

27. Ikusi De la Granja, op. cit.

hiru laurdenak baino gehiago izan ziren Lizarran, baina populazioaren erdia baino gehixeago bakarrik zen.

Lizarrako Estatutua aurrera atera balitz, eskumako alderdien nagusitasuna sendotuko zuen, horien esku —jeltzaleak eta karlistak— zeuden eta udal gehienak. Populazio-zati handiagoa bizi zen, ordea, guneko urbano eta industrializatueta. Hortik, ezkerreko alderdien sufragio unibertsalaren aldeko mozioak Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuan.

Errepublikaren Konstituzioa onartzeak balio gabe utzi zuen Vaticanoarekin harremanak izateko ahalmena eta, horrekin batera, Lizarrako Estatutua. Euskaldunon autonomia-nahiak urrutiegi zihoazen, antza, Espainiako estatuak onar ezakeena —edo onartu nahi zuena— kontuan hartuta.

3.2.2.1. Eusko Abertzale Ekintzaren jarrera

Hainbat ekintzailek (EAE/ANVren partaideak izendatzeko hitza) parte hartu zuten Elren aurreproiektuan. Ondorioz, alderdi abertzaleak onetsi egiten zuten Eusko Ikaskuntzaren Estatutua zegoen bezala; alegia, ez zuen nahi inongo aldatarik ezartzerik; horrela, lan egin zuten ezkerrek zein eskuinak bere horretan utz zezaten. Dena dela, alderdi ekintzaileak gestoren bidea ere babestu zuen, eta hor ere egin zuten lan: prest zegoen, kosta ahala kosta, autonomia lortzeko edozer egiteko eta irensteko

EAE/ANVren ustez, jeltzaleek hanka sartu zuten karlistekin bat egitean, Lizarrako Estatutua sustatzeko: garbi zegoen karlistek estatutua borroka-tresnatzat zutela Errepublikaren aurka egiteko, bost axola zien-eta autonomiak. Horren aurrean, ez zuen, bada, bat egin alderdi ekintzaileak Lizarrako Estatutuarekin, eta atzerakoitzat eta Errepublikaren aurkakotzat jo zuen: baldintza horietan, Lizarrako Estatutua bideraezina zela uste zuten, eta Espainiako Gorteek atzera botako zutela²⁸. Ulergarria da, ondorioz, aldatetarik gabeko Eusko Ikaskuntzaren Estatutuaren aldeko hautu garbia egin izana.

Lizarrako Estatutua onetsi eta egun batzuk geroago, EAE/ANVk lortu zuten Bilboko Udalak, zein ezkerreko udal gipuzkoar eta bizkaitarrek, zein probintzia-gestorek Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektua onartzea, aldatetatxo batzuk eginda; berandu izanagatik, agerian uzten du indarrak biltzeko Eusko Ekintzaren lana eta esfortzua autonomiaren amoreagatik.

3.3. Gestoren Estatutua (1932-1933)

Madrilgo Gobernuak onartu egin zuen euskaldunon autonomiarako eskubidea, baina errefusatu egin zuen Lizarrako saiakera. Autonomia nahi izatekotan, aukera bakarra zen probintzia-gestorek markatutako bidea, bat etorrita Errepublikaren Konstituzioko arauekin²⁹. Indar errepublikazaleen asmoa zen jeltzaleak erakartzea legearen esparrura. Eredu bat izatearren, Eusko Ikaskuntzarena hartu zuten oinarri gisa. Legearen aldetik, prozedurak eskatzen zuten udalek onartzea eta herriak berrestea erreferendum bidez.

28. Ikusi De la Granja op. cit.

Honako puntuok azpimarra daitezke Gestoren Estatutuan³⁰:

- Murriztu egiten zituen euskal autonomiaren ahalmenak 1931koekin konparatuz.
- Euskal Herrian bizi ziren guztiak ziren hiritartasun-eskubideen jabe.
- Hauteskende-prozesu demokratikoak lehenetsi ziren erakundetze-oinarriak egituratzeko, eta ez zeharkakoak. Hala, herri-sektoreek ordezkapen zuzenagoa lor zezaketen.
- Botere exekutiboa kontrolatzeko formulak azaldu ziren. Halaber, Legebiltzarreko ordezkarien erdiak hautatzeko modu proportzionala erabili nahi zen; beste erdiak, probintziak aukeratuko ziren, ordezkari kopuru bera izanda.
- Itun Ekonomikoak, Kontzertuak, sistema sozioekonomikoa arautuko zuen.
- Kulturari, ziurtatu egiten zuen heziketa doako eta derrigorrezkoa lehenengo hezkuntzan. Euskal hezkuntza-sistema berezkoa ezartzen zuen, eta euskal unibertsitatea eratze bidea jarri. Beheko klaseek goi-mailako irakaskuntzarako sarbidea izatea zuen lehentasunen artean.
- Euskarari dagokionez, ez zen gauza handirik zehazten; diskriminaziorako atea zabalik uzten zen, ondorioz.

Nahiz eta alderdi abertzaleak ez asebate estatutu-proiektu horrek, aldeko agertuko dira, eta lehenengo pauso iritziko diote, burujabetza handiagorako baten bidean.

Baina Nafarroan arazoak sortu ziren: batetik, eskuinak eta ezkerak ez zuten onartzen Erresuma Zaharra estatutuaren barnean sartu eta gainontzeko euskal probintziekin elkartzea; bestetik, iruzurra izan zen erabakia hartzeko nafar udalek egin zuten asanbladan³¹: eta nafarrak kanpoan geratu ziren! Hala ere, bai EAJ/PNVk, bai EAE/ANVk aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Gauza bera egin nahi izan zuen Araban ere eskuinak Oriolen³² bidez: Estatuaren kontrako kanpaina eginez, prozesua 1936 arte atzeratu zuen³³; botere- eta indar-erakustaldia izan zen jauntxoaren kontrolari eutsi nahian; horretarako, gehien-agoa zen nekazaritza-populazio esanekoan gotortu ziren Arabako indar biziak.

Eusko Abertzale Ekintzak sutsuki babestu zuen 1932an hasi eta 1933an onartu zen estatutua, nahiz eta ez parte hartu idazteko garaian. Oroz gain, prozesua hastea jotzen zuen giltzarritzat: prest zegoen ideologia-printzipioetan amore emateko eta onartzeko ia edozer. Izan ere, ikusten zen prozesua ez zela samurra izango: Katalunian ere traba handiak izan zituzten autonomia sendotzeko³⁴. Gainera,

29. Estatu integraltzat definitzen du bere burua Espainiako estatuak. Hala eskatzen zuten erregioen autonomia onartuagatik, uko egin zion antolaketa federalari.

30. Ikusi Renobales, op. cit.

31. Ikusi Jimeno Jurio, 1997.

32. Ikusi *José Luis Oriol Urigüen* www.euskomedia.org/aunamendi/111602.

33. Aurreraxeago agertuko da: Araban, erreferendumean, zentsuaren % 46,6k bakarrik onetsi zuen estatutua.

34. Ikusi Estatuto de autonomía de Cataluña 1932, wikipedia.org/wiki/Estatuto_de_autonomía_de_Cataluña_de_1932 (2012ko martxoan). Ikusi De la Granja, op. cit.

estrategia-mailan ere barneratua zuen norantz jo: autonomia martxan jartzen zenerako, alderdi ekinzaillearen asmoa zen estatutuan azaltzen ziren lan-ildoak oinarri hartuta, jardunbide autonomikorako egitarau bat prestatzea eta hori bihurtzea programa politiko nagusia. Nabarmen erakusten du horrek autonomiarekiko zuen atxikimendua eta zenbateraino blaitzen zuen goitik behera alderdiaren nortasuna: iragazkortasuna eta malgutasuna ziren helburuetara jotzeko tresnak.

Madriren, Azañaren³⁵ gobernuaren eroritako, parlamenturako hauteskundeetara deitu zuten; baina, aurretik, estatutua onartzeko erreferenduma egitea lortu zen: Bizkaian eta Gipuzkoan, baiezkoak aise irabazi zuen. Araban, ordea, zentsuaren % 46,6k bakarrik eman zuen baiezkoa. Emaitzak garbiak izanagatik, eskuinak eta erradikalek osatutako gobernu berriak ez zuen bultzatu euskal autonomia, Arabaren aitzakiari helduta. 1936ra arte ez zitzaion berriro ere helduko gaiari, beste estatutu baten bidez.

4. Hauteskunde-aliantzak eta emaitzak

Alderdi politiko baten proiektio publikorako ezinbesteko neurgailu dira hauteskunde-prozesuak. Horien bitartez, alderdiaren erradiografia atera dezakegu: gainontzeko indar politikoez duen harremana, zein gizartean duen sostengua.

EAE/ANV alderdi jeltzalearen eta ezkerreko alderdien artean mugitu zen. Alderdi txikia izateak ez zion tarterik uzten gehiagorako. Giltzadura-alderdia izan zen: batzuetan —1931n eta 1936an—, ezkerrekin bat egin zuen; beste batzuetan, berriz, abertzaleekin. Mugimendu horietan, zerikusi handia izan zuten Estatu-tua lotzeko aukerak eta gertutasunak. La Granjaren arabera, hiru aldi garbi daude:

4.1. 1931: Ezkerrekin bat egitea eta haustura

Errepublikazaleekin eta sozialistekin bat eginda aurkeztu zen alderdi ekinzaillea 1931ko udal-hauteskundeetara, Euzko Alderdi Jeltzalearekin kontrajarrita. Hainbesteko konfiantza zuen alderdi errepublikazaleetan, non uko egin zion EAJ/PNVk proposatu zion Fronte Abertzalea osatzeari.

Ezkerrekin jarraitu zuen Gipuzkoan, urte bereko hauteskunde konstituziogileetan; ezkerreko blokearekin bat eginda, hautagai bat aurkeztu zuen: Justo Garate medikuak 25.000 bozka izan zituen; 205en faltan, ez zen diputatu atera.

Bizkaian, ordea, atera egin zen aliantzatik behin-behineko euskal gobernurik osatu ez zelako eta ezkerrek zuzenketak egin nahi izan zizkiolako Eusko Ikaskuntzaren Estatuari. Hala ere, alferrik saiatu zen jeltzaleekin bat egiten. Azkenean, bakarrik aurkeztu behar izan zuen: 2.000 boto baino gehixeago eskuratu zituen Bilboko hauteskunde-barrutian (% 3,8) eta 1.500 Bizkaian. Porrot handia izan zen, eta, ondorioz, zor ekonomikoak eta barne-krisia sortu ziren.

Arabian, hautagai errepublikazalea babestu zuten: aipatu dugu probintzia horretan abertzaleek zuten indar eskasa.

35. Ikusi De la Granja, op. cit. Ikusi wikipedia.org/wiki/Manuel_Azaña (2012ko martxoan).

4.2. 1933: Euskal Fronte Nazionalaren saioaren porrota

Eusko Ekintzak apurtu egin zuen ezkerrekin, urte horretako hainbat gertaera zirela kausa: Estatuaren atzerapena, gobernadore errepublikanoek abertzaletasunaren (EAE/ANV barne) aurka eragindako jazarpen gogorra, eta abertzale eta sozialisten arteko bortxa politiko handia³⁶. Ondorioz, hurbildu egin zitzaion alderdi jeltzaleari. Hala, bizkortu egin zen Jagi-Jagik³⁷ proposatutako Fronte Nazionalaren aukera. Zapuztu egin zuen, ordea, asmoa EAJ/PNVren hegemonia-gogoak eta harropuzkeriak: bakarrik joan ziren hauteskundeetara jeltzaleak³⁸. Jagi-Jagik uste zuen Fronte Nazionala modu bat zela estatutuaren aurkako errefusatzea, zein Madrilekiko negoziazioak arbuiazen zirela adierazteko. Eusko Ekintzak, berriz, helburua zuen indarrak biltzea, euskal frontearen bidez estatutua lortzeko.

Bizkaian, erabaki zuen ez aurkeztea, EAJrekin aliantzarik ez zertzean. Dena dela, jeltzaleentzat eskatu zuen bozka.

Gipuzkoan, hautua izan zen «*Estatutuaren aldeko hautagaitza*» bozkatzea: EAE/ANVko hautagai bat, EAJ/PNVko beste bat eta bi errepublikazale; baina, hori guztia haien onespina izan gabe eta beren kabuz —panachage³⁹—. Imazek, hautagai ekintzaileak, 2.000 boto baino gehixeago izan zituen (% 1,6).

Arabian boto-askatasuna proposatu zuen; Landaburu jeltzalearen alde egin zuten zeuden ekintzaile apurrek.

4.3. Herri Frontean sartzea

Herri Frontean sartu zen Eusko Ekintza, 1934ko⁴⁰ gertaera politiko garrantzitsuak zirela-eta: euskal estatutuaren tramitazioa gelditua zen Madrilgo Gorteetan, ez aurrera, ez atzera; Samperren gobernuaren eta euskal udalen artean gatazka handiak izan ziren (Itun Ekonomikoa zalantzan jarri zuten); abertzaletasunaren eta ezkerren arteko hurbilketa gertatu zen; urriko iraultzak eta ondorengo errepresioak nabarmen garrantzitu zuten giro soziala. Gainera, barneratu egin zuen bere hauteskunde-programan euskal estatutua bultzatzeko konpromisoa ezkerreko aliantzak, eta horrek ikaragarri akuilatu zuen aldeko hautuan alderdi abertzalea. Dena dela, Herri Frontean sartzeko erabakia ez zen aho batez hartu: Gipuzkoan, Araban eta Nafarroan, urtarril bukaeran sartu zen, eta hauteskunde-kanpainan parte hartu ahal izan zuen. Bizkaian, ordea, ez zen hauteskundeak egin arte sartu. Gipuzkoari dagokionez, ez zuen hautagairik aurkeztu Herri Frontearen zerrendetan Eusko Ekintzak, eta eman egin zizkion botoak, besterik gabe, trukean ezer eskatu gabe.

36. 1933ko azaroaren 19an, hil egin zuten jatorri galiziarreko Hermenegildo Alvaríño militante ekintzailea, Barakaldoko Euskal Etxearen aurrean PSOEko jendearekin izandako istilu larrietan.

37. Jagi-Jagi: alderdi jeltzaletik bereizitako talde independentista, Mendigoxale-Batzan du jatorria. Elias Gallastegi «Gudari» izan zen buru nabarmenena. Jagi-Jagik independentziaren aldeko jarrera sutua zuelarik, ez zuen batere ondo ikusten Errepublikari sendotzeko eta legitimatzeko ezein saio. Horrela, ez zuen onartzen Espainiaren emakidatzat jotzen zuen autonomia-erregimenik.

Ikusi Stürtze, 1990.

Ikusi Lorenzo Espinosa, 1992.

38. Ikusi De la Granja, op. cit.

39. Ikusi wikipedia.org/wiki/Panachage (2012ko martxoan).

40. Erradikalizatze nabarmena izan zen urte horretan ezker-eskubiko posizioetan. Polarizazio politiko eta soziala gertatu zen estatuan.

Ikusi Apaolaza, 2004. Alderdi ekintzailearen parte-hartzeaz ere hitz egiten du.

Alderdi ekintzailea Herri Frontearen aldeko kanpaina aritu zen. Hautagai bat aurkeztu zuen Nafarroako Herri Frontean (Juan Carlos Basterra): 35000 bozka izan zituen, ezkerreko aliantzako nafar hautagaien artean gehien lortu zituena, hain zuzen ere; izan ere, alderdi jeltzaleko botoak ere izan zituen; hala ere, ez zen diputatu atera.

Kalapitak zebiltzan, baina, Eusko Ekintzaren barruan: erradikalizatu egin zelarik alderdiaren sektore bat, Barakaldoko EAE/ANVk nahiago izan zuen alderdi jeltzalearekin bat egin, eta atera egin zen erakundetik; ondorioz, Eusko Abertzale Ekintza Autonomoa zatiketa sortu zen. Erabakian garrantzitsua izan zen EAJ/PNVren proposamena EAE/ANVko Abasolo Barakaldoko alkate izan zedin.

Bizkaiari dagokionez, bozka-askatasuna proposatu zuten, artean Herri Frontetik kanpo. Izan ere, ez zuten lortu, orduko hartan ere, alderdiaren hautagai bat sartzea ezkerreko batasunaren zerrendetan.

Porrot erabatekoa izan ziren alderdi ekintzailearen hauteskunde-negoiazioak Bizkaian —indar handien zuen lurraldean—, Errepublika aldiaren zehar: egin ziren parlamenturako hiru hauteskundeetan, ez zuen behin ere lortu aliantzarik gauzaterik. 1936an ez zuen hautagairik aurkeztu, bigarren aldiz jarraian.

Ikusi dugun bezala, EAE/ANVk ez zuen arrakastarik izan Errepublikako parlamenturako hauteskundeetan: ez zuen diputaturik lortu. Honako hauek ditugu porrotaren zio nagusiak: irizpide garbirik ez zuen izan aliantzak egiteko orduan; barne-desadostasunak handiak izan ziren, eta irtenbide kontrajarriak plazaratu ziren, Bizkaian izan edo Gipuzkoan. Alderdi txikia izanda, ziurtatu egiten zuten ia prentsarik ez izateak eta diru-baliabide urriek oihartzun eza; ulergarria, beraz, beste alderdi batzuekin bat egiteko premia, iraungo bazuen.

5. EAE/ANVren bilakaera: euskal errepublikazale liberalen alderdi izatetik euskal alderdi laboristarantz: eztabaidak⁴¹

1933ko bukaeran eman ziren argitara arazo sozialari buruzko eztabaidak, *Tierra Vasca* alderdiaren egunkarian. Auzia zen zentro-ezkerreko planteamenduetan jarraitzea edo, argi eta garbi, ezkerrera jotzea eta langileriaren askapen soziala aintzat hartzea. Jose Olivares («Tellagorri») eta Luis Areitioaurtena ziren biratze horren bultzatzaile nagusiak. Artean, helburu nazionala lehenetsi zen, eta euskaldun guztien batasunak jarraitu zuen helburu izaten. Errefusatu egin zen, beraz, klase-alderdi bihurtzea, baina ezkererantz egiteko hazia ereinda zegoen.

1935ean, Tomás Bilbao eta Andrés Perea federalismoaren alde eta separatismoaren kontra agertu ziren: Azaña jo zuten autonomiarako berme. Alderdi ekintzailearen autodeterminazio-zaletasun tinkoan aldaketa ekarri zuen horrek. Sortu zen polemikaren kariatara, nahiz eta Batzorde Nazionalak babestu, Bilboko Eusko Ekintzako lehendakari izateari utzi zion Tomas Bilbaok⁴².

41. Ikusi de la Granja op. cit. Ikusi Renobales, op. cit.

42. Tomas Bilbao, Negrinen gobernuko ministro izan zen EAE /ANVren izenean, gerra garaian.

Alderdian, aurrerazale abertzaleak bizi ziren elkarrekin, egitasmo sozioekonomiko desberdinak zituztenak. Eduardo Renobalesek hiru talde bereizten ditu: sortzaileek osatutakoa, moderatuena, San Andreseko Manifestuari eutsi nahi ziona —Urrengoetxea, Garate, Arana eta Ortueta—; sozialdemokrata, Azaña zuten begiko, eta Batzorde Nazionalaren babesa zuen —Perea eta Bilbao—; ezkertiarra eta sozialista —Olivares, Areitioaurtena, Maury eta Meabe—.

Eztabaidak ziren nagusi alderdian, eta dimisioa ere aurkeztu zuen Batzorde Nazionalak: 1935eko bukaeran, Asanblada Nazionalera, kongresura deitu zen, beste programa bati ekitearren. Bertan, lerro ezkertiarrenak ahalegina egin zuen EAE/ANV alderdi laboralista bihurtzeko: kapitalismoaren aurkako, programa sozialista zen —ekonomia Estatuak kontrolatzea babesten zuen—, eta sindikalismoa jartzen zuen gizartearen gidaritzan —governua langileen erakunde eta sindikatuetatik sortuko zen—; uko egiten zion, halaber, parlamentarismoari. Nahasketa zen, beraz, sindikalismo eta sozialismo estatuzalearen artean; arrakasta izateko ELA sindikatuaren gidaritzara bere esku hartu beharko zukeen, Labour Partyk ⁴³bezala; baina ez zen halakorik, inondik ere, gertatu.

Programa hori onartu balitz, haustura izango zen aurreko ibilbide guztiarekin: bestelako alderdi bat izango zen. Alderdiaren sortzaileetako asko ez zeuden, ordea, horrelakorik onartzeko prest. Ondorioz, hasiera batean, ezin izan ziren ezarri tesi berriak, gogotik ahaleginduagatik. Batzorde bat sortu zen EAE/ANVren proiektua berrikusi eta programa berria adosteko, afiliatuen artean gero bozka zedin.

Dena dela, kontrola zuen ezkerreko lerroak Batzorde Nazionalaren eta *Acción Vasca* astekariaren gainean; hala ere, ezin izan zuen alderdia nahi bezala moldatu 1936ra arte. Bitartean, moderatuen aurka, kritikak plazaratu ziren agerkari berrian. Horren aurrean, sortzaileek —Garate, Urrengoetxea, Arana...— alderdia utzi zuten. Alde egin zutenen artean, San Andreseko Manifestuaren 5 sinatzaile zeuden, lehenengo Batzorde Nazionaleko hiru partaide... maila sozial ertainekoak ziren, ikasketa-maila altukoak, *Comunión*-etik etorritakoak; EAJ/PNVrekin elkartuta joan nahi izan zuten 1931 eta 1933ko hauteskundeetan. Hala ere, Eusko Ekintza utzi ondoren, ez ziren alderdi jeltzalean sartu.

Alderdi ekintzailearen erradikalizatzearen arrazoiaren artean Euskal Herriko zein Espainiako egoera txarra dugu. Gorago aipatu ditugu (estatutua aurrera atera ezina, euskal udalen eta Madrilgo Gobernuaren arteko gatazka ardoaren erreboltagatik eta 1934ko urriko iraultza), eta giro soziopolitikoan izandako gertaerei dagozkie. Erradikalizatzeko orokorrako baten ondorio eta isla dira.

6. 1936: Herri Frontea, gerra eta Urriko Estatutua. EAE/ANVren jarrera eta jokabideak

1936. urtea berezia izan zen: gertaera garrantzitsuen oldeak aparte ukitzera behartzen gaitu. Ordura arteko korapilo guztiak askatu egin ziren, inflexio-puntua izan zen: geroztik ezer ez zen berdina izango.

43. Oso estua izan da historikoki alderdi sozialista/laboristen eta sindikatuen arteko harremana. Sindikatuen indarrak elikatu du alderdiaren indarra eta arrakasta. Paretsu joan dira, bestalde, bien garapena eta zabaltzea. Espainiako estatuan UGT eta PSOEn arteko lotura historikoa dugu horren frogara.

6.1. Hauteskundeak

Ezkerreko alderdiek (Izquierda Republicana, Unión Republicana, Ezquerria Vasca Federal, PSOE, PC⁴⁴, UGT) adierazi zuten bat egiten zutela Euskal Herri-rako autonomia-asmoekin. Horrek —4.3. puntuaz azaldu bezala— ekarri zuen EAE/ANVren atxikimendua Herri Frontearekiko.

Emaitei dagokionez, eta Nafarroa barne, eskubiko alderdiek 8 diputatu lortu zituzten, EAJ/PNVk 9 eta Herri Fronteak 7. Dirudienez, EAE/ANVren boto gehienak Herri Frontera joan ziren.

Herri Frontea izan zen hauteskundeetan irabazlea estatu-mailan. Kontuan izanda eskuinak galdu egin zuela, eta ezkerrearen eta jeltzaleen arteko hurbilketa, suspertu egin zen euskal estatutuaren aldeko mugimendua; bazirudien baietz, orduko hartan egingarria zela Euskadira autonomia lortzea, ezkerria nagusi zen Gorteetan.

6.2. EAE/ANVren egoera: aldaketa esanguratsuak

Gero eta nabarmenagoa zen Eusko Ekintzan San Andreseko Manifestua ordezkatu eta ezkerreko alderdi bihurtzeko gogoia. Berekin ekarri zuen beste esparru batzuk alboratzea 1931n abertzaleen batasunerako mugimendu liberal zabal bat sortzeak. Gabezia horiei erantzuteko ezintasunen aurrean, ezkerreko alderdi abertzale baten beharra nagusitu zen. Hala ere, EAE/ANV modu nabarian ahuldu zen 1936an: batetik, alderdiaren koadro intelektualak ziren sortzaileek alde egin zutelako; bestetik, Barakaldoko erakundeak alderdia utzi zuelako. Barakaldokoa zen alderdiak udal-mailan zuen indar nagusia, 1.000 afiliatu baitzituen. Aldi berean, Gipuzkoan ere izan ziren baja batzuk, eta alderdia berrantolaketa-prozesuan zegoen.

Sendotu egin ziren Eusko Ekintzaren harremanak Herri Frontearekin, alderdi jeltzalearekin zituenean kaltetan. Etengabeak ziren EAJ/PNVren kontrako kritikak eta erasoak. La Granjaren ustez, EAE/ANV zeharo integratuta zegoen ezkerren aliantzan, eta horrela jarraitu nahi zuen aurreikusten zen Euskadi autonomoan. Pragmatismo politikoaren aldeko hautua eginagatik, argi eta garbi azaldu behar da alderdi ekintzaileak ez ziola inoiz uko egin autodeterminazioaren aldeko aldarriari.

1936ko ekainaren 28an, Bilboko Kongresuan, Eusko Ekintzak bide eman zion argi eta garbi ezkerrekoa zen programari⁴⁵. San Andreseko Manifestua baino haratago zihoan, bai maila nazionalen, bai sozialean: eutsi egiten zion funtsezko ideologia-oinarriari —Euskadiren nortasun nazionalaren onarpenera—, baina aurrerago zihoan, era berean: ez zen aipatzen autonomia, ezta Espainiako Errepublika ere; autodeterminazioa euskal estatu independente eta birbatu baten bidez gauzatu nahi zuen; libreki itundutako nazioarteko hitzarmenek bakarrik mugatu ahal izango lukete aipatu estatuaren soberania; Europako Errepubliken Konfederazioak ordezkatzeko du Iberiako Herrien Konfederazioa.

44. Partido Comunista de Euskadik autodeterminazio-eskubidea arazorik gabe aldarrikatzen zuen, Leninen irizpideei jarraiki. Ikusi Añamendi Entziklopedian Partido Comunista de Euskadi.

Dena dela, aldaketa handienak esparru sozialean gertatu ziren: programa sozioekonomiko antikapitalistari ekin zitzaion, Marxzalea ez zena, bestalde: oinarrizko sektoreen nazionalizazioa; jabetza-eskubideari eta ekimen ekonomiko pribatuari mugak jartzea; sindikatuen indartzea... politika ekonomiko monopolista eta oligarkikoen aurkako tesi garbiak ziren, baina ez iraultzaileak: burgesia txikiaren interesak langileenekin batzen zituen. Burgesiaren eta marxismoaren arteko zubia izan nahi zuen, betiere De la Granja bildutako lekukotzen arabera. Uko egin zion komunismoaren edo sindikalismo iraultzailearen —1935eko egitasmo laboristan aipatzen zena— bidetik jotzeari, eta hobetsi egin zuen sozialismo erreformistaren ildoak.

Ez da harritzekoa, zentzu horretan, baserritarrek baserria eta arrantzaleek itsasontzia jabetzan hartzeko erraztasunak ematea ere helburu izatea.

Euskarari dagokionez, hizkuntzaren batasuna eta zabalkundeari heldu beharra aldarrikatu zuen.

6.3. 1936ko Estatutua eta lehenengo Eusko Jaurlaritza

1936ko hauteskundeen emaitzek horretaratuta, Azaña izendatu zuten Errepublikako presidentea; horrek aukera eman zion Herri Fronteari bultzatzeko autonomia-proiektuaren parlamentuko tramitazioa. Arazoak sortu ziren, ordea, Itun Ekonomikoaren inguruan: pribilegio onartezinak baino ez ziren espainiar parlamentari askoren iritziz. Gerra piztu zen, ordea, gobernuak estatutua onartzeaz zuela.

Urriaren 1ean onetsi zuten, aho batez, Madrilgo Gorteek autonomia-estatutua. Urriaren 7an, Jose Antonio Agirre lehendakari izendatu zuten —lehenengoa historian— Gernikan. Lehenengo Eusko Jaurlaritza osatuta, Gonzalo Nardiz izan zen EAE/ANVren ordezkaria: Nekazaritza Saitetik jardun zuen.

Estatutua ematea modua izan zen euskal abertzaleen Errepublikarekiko leialtasuna irabazteko. Testu labur eta zehatza zen.

Honako ezaugarriak izan zituen:

- Ez zen aipatzen eskubide historikoei buruzko ezer, ez Nafarroari buruzko fitsik ere. Dena dela, Nafarroako Herri Fronteak honako hau eskatu zuen: estatutuak onar zezala Nafarroa sartzea euskal autonomian.
- Testua erabat atxikitzen zitzaion indarrean zegoen Errepublikako legeriari. Ez zen zehazten ezer euskal autonomia-sistema tradizionala gogorarazi zezakeenik: definizio eza zen nagusi, probintzien erabaki-esparruari edo aldundien indarrari zegokienez.
- Euskarari ez zitzaion aparteko garrantzirik onartzen, eta bigarren mailako gaia zen: ez zitzaion bide ematen garatu ahal izateko, eta kinka larrian geratzen zen.
- Errepublikak ahalmena zuen estatutua aldatzeko, hala iritiz gero.

45. Ikusi De la Granja, op. cit. Ikusi Renobales, op. cit.

Gerraren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzak bermatu egin zituen eskubide indibidualak eta kolektiboak, erlijio-, lan- eta jabetza-askatasunekin batera. Era berean, ordena publikoari eta segurtasunari ere eutsi zion.

Halaber, garrantzia eman zion euskal jendartearen nazio-ezaugarriak eta kultur identitatearen zeinuak babesteari eta bultzatzeari; herrialde demokratikoekiko harremanak estutzen ere saiatu zen.

Eta hori guztia, gerrarako beharrezkoak ziren egiturak sortzen eta zaintzen zituen bitartean.

Gerra aipatuta, Eusko Ekintza buru-belarri inplikatu zen bertan, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko Defentsa Batzordeetan hartu zuen parte hasieratik. Lau gudari-batailoi⁴⁶ eratu zituen, eta Euzko Gudarosteko partaide izan zen. Albertia mendian porrot handia jasanagatik, borrokan jarraitu zuen, baita Asturiasen ere, Bizkaia frankisten esku geratu zenean. Odolez ordaindu behar izan zuen gazte-belaunaldi hark printzipioekiko leialtasun fermua.

7. Ondorioak

Honaino iritsita, mereziko luke iraganaren eta orainaren arteko pertiga-jauzian aritzea. Zilegi bekit, beraz, ikuspegi sinkroniko batetik arrazoi praktiko eta kritikorako hainbat ondorio atera eta hausnarketa-ildo batzuk markatu nahi izatea. Horri guztiari, sintesi txiki bat jarri nahiko genioke aurretik, irizpide diskronikoago batetik, oraindik.

- Eusko Ekintza izan zen, 1930. eta 1936. urteen artean, Bizkai eta Gipuzkoako burgesia txikiaren eta langile-klase urbanoen ahalegin politikoa zentro-ezkerreko alderdi abertzale bat osatzeko, lehenik, eta ezker abertzalekoa, ondoren. Hasierako egitasmo akonfesional, liberal, errepublikazale eta demokratikoa, antikapitalista eta sozialista bihurtu zen 1936ko kongresuaz gozotik. Gerra Zibilak txikitu egin zuen asmo oneko ibilbide hori guztia.
- Euskal erakundetze bat, ororen gainera, lehenetsita, EAE/ANV euskal alderdi estatutuzaleena izan zen Errepublika garaian: EAJ/PNV ez bezala, ez zuen autonomia auzi erlijiosoaren menpean jarri —Lizarrako Estatutua—, eta ez zuen alderdi barruan autonomiaren aurkako talderik izan —Jagi-jagi EAJ/PNVn—. Beste indar politiko batzuekin elkartzeko, beti jarri zuen baldintza ezinbesteko autonomia babestea. Hala ere, horrek ez zuen desitxuratzeko autodeterminazioaren aldeko aldarria eta borondatea.
- Aliantza-politikari dagokionez, fronte abertzalearen eta ezkerreko frontearen artean hautua egitea izan zen koska: autonomia lortzeko prozesuaren gora-beherek baldintzatu zuten erabakia: 1931n eta 1936an, ezkerrekin bat egin zuen, horrela estatutua lortuko zelakoan. 1933an, berriz, prozesuak aurrera egiten ez zuenean, inoiz baino gertuago egon zen, Jagi-Jagiren proposamena bere eginez, fronte abertzaleari heltzetik. Jeltzaleen eta ezkerren

46. Olabbarri, Euzko Indarra, EAE/ANVren hirugarrena eta Askatasuna. Barakaldoko EAE/ANVko kide ugari EAJ/PNVren Gordexola batailoian aritu ziren, zatiketa zela medio. Ikusi Vargas Alonso, 2002.

artean ibiltze horrek sinesgarritasun politikoa kendu zion eta barne-kontraesanak sortu zizkion.

- EAJ/PNVk lortu zuen indarra eta nagusitasuna izan zen EAE/ANVk izandako arrakasta eskasaren zergati nagusia: Euskadiko lehenengo indarra izan zen, eta masa-mugimendu eskerga osatu zuen. Dena dela, Eusko Ekintzak irekitako bideari ekin zion Euzko Alderdi Jeltzaleak gero, eta aurretik kritikatu zuena egiten bukatu zuen: autonomia-estatutua lehenetsi eta Errepublikarekin eta ezkerreko indarrekin elkarlanean aritu.
- Bitxia da ikustea Errepublika garaiko eztabaida asko gaur ere ari direla, maila batean, gertatzen: lurraldetasuna —Probintziaren autonomia/Erkidego Autonomoaren nagusitasuna—; Itun Ekonomikoari buruzko zalantzak eta errezeloak; autonomiaren nolakotasuna eta Estatuarekiko lotura —federazioa, konfederazioa, independentzia—; identitatea —zein den euskaldun—; norbanako/kolektiboaren arteko tentsioa... Horrek erakusten digu garai hartan gure artean tankera hartzen hasi ziren modernotasun-parametroek perspektiba luzea zutela gerora garatu eta gauzatzeko. Horren lekuko, egun, oraindik erabakitzeko dagoela erabat gure barne-egituraketa zein kanpokoarekiko harreman/loturen jitea. Gako asko eta asko 30eko hamarkadan azaldutakoak dira. Ikus daiteke gai bertsuen inguruan dihardugula.
- Errepublika garaiko EAE/ANV ideia-laborategia izan zen euskal ikuspegitik egoerari egokitu eta gure herriarentzat etekin handienak lortzeko. Zentzu horretan, izandako eztabaida eta zalantza askok gaur egunerako ere balio dezakete, neurri batean. *Atzeak erakusten aurrea nola dantzatu*. Nolanahi ere, gaurtik begiratuta ia edozein identifika daiteke alderdi ekintzailearen planteamendu askorekin eta bere egin. Horrek erakusten du zein oinarri zabal eta egokien gainean jakin zuen bere egitasmoak plazaratzen Eusko Ekintzak; ideien arragoa izan zen, euskal politikagintzarako parametro aurrerazaleetatik aritzekotan, behinik behin.
- Gaur egungo mitifikazio eta interpretazio interesatuen gaintik, badago hurbiltzea errealtatea izan zenaren lurraldera: Errepublikak oso uzkur, zuhurregi, jokatu zuen euskaldunen asmo eta eskaera bidezkoen inguruan; eta EAE /ANV oso posibilista aritu zen, akordioetara iristeko amore emateko prest. Entzuten eta irakurtzen diren hainbat interpretazio direla-eta, hausnarketa egin beharko litzateke historia erabili eta manipulatu nahi izateko ditugun praktikez eta ohiturez. Beharrezkoa da zentzuz jokatzeko: begirunea zor diegu herritarrei eta, esaterik dagoen neurrian, egiari edo antzekoari. Idealizazioek ezin dute itxuraldatu gertatutakoa. Horren ildotik, gogorarazi, duela urte gutxi batzuk esaten zenaren kontrara, EAE/ANV ez zuela Lizarrako Estatutua onetsi⁴⁷. Eta, gerra hasi arte ez zuela Errepublikak autonomia eman —belaxka eta eskasa, zekena baino zekenagoa paperean; ez, ordea, errealtatean—.

47. Ezker abertzalearen arabera, EAE/ANVk Lizarrako Estatutua bultzatu zuen. Sarritan egiten den baieztapena da. Ikusi www.elcorreo.com/alava/prensa/20070515/politica/aboga-estatuto-euskadinarra_20070515.xml

- Eredugarri eta inbidiagarria da EAE/ANVren jarrera ireki eta liberala. Garai hartan ez ezik, gaur egun ere beharrezkoak baino beharrezkoagoak zaizkigu horrelakoak. Pentsa dezagun Pio Baroja idazlea ere erreferentzien artean zutela: aurrerantz begirako gure herriaren integrazio- eta barnekoheiorako aintzat hartzeko moduko jokamoldea. Giza sinergiegi begira garaitu beharreko erronka.
- Alderdi ekintzaileak, alderdiaren interesen gainetik jarri zituen interes orokorrak eta kolektiboak; etorkizun-ikuspegi pragmatiko batetik aritu zen sozialki eta politikoki. Paregabe jokatu zuen, gainera, abertzaletasunaren berrikuntza ideologiko eta politikoan. Kuantitatiboki gutxi izan arren, kualitatiboki jauzi erraldoia ekarri zuen euskal mundu tradizionalera. Gainera, 60ko hamarkadan eta geroago errepikatuko ziren eztabaida eta planteamenduen aurrerapena izan zen, hain zuzen ere. Gure historia garaikidean alboratu beharko ez genukeen pasarte gogoangarria dugu, beraz, EAE /ANVren sorrera eta hegaldatzea.
- Eusko Ekintzak bere historian azaltzen duen bitasun hori —hasierako eta bukaerako irizpide-ezberdintasuna—, konstante bat da euskal alderdi politiko eta joeren norabidean, egun zein lehen. Horren frogatzat aipa dezakegu, Franco hil ondorengo lehenengoetako hauteskundeen harira, alderdi ekintzailearen zati bat Euskadiko Ezkerrarekin lerrokatu zela; eta beste bat, handiena, segur aski, Herri Batasunarekin⁴⁸. Ez da harrizkoa egiten bidegurutze horretako hautu-desadostasuna, EAE/ANVren historia zertxobait ezagututa⁴⁹. Eta dialektika horren —EAJ/PNVren bilakaeran zein egun ere antzeman daitekeena— jakitun izateak asko lagun diezaguke euskal politikagintzaren bektoreak aurreikusten eta ulertzen. Gure kultura politikoaren ezaugarrietako bat da, antza, eta onartu beharrean gaude. Taktika- eta estrategia-dantzak indartsu baldintzatzen du jardun politikoa gure herrian.
- Azkenik, kontuan izan behar dugu historia ez dela behin eta betiko idazten den zerbait. Interpretazio ezberdinek eta berriek —horien arteko joko oparoak— aldatu egiten dute gertaera edo aro bati buruz izan genezakeen ideia edo ikuspegia. Bizitzaren legea da. Etengabeko zalantzatik eta dakiguna auzitan jartzetik dator jakintzaren zabaltzea eta aurrerapena⁵⁰. Komeni zaigu zergatien atzetik nekatzea eta lehenengoan dena ez sinestea. Horretarako, gaitasun kritikoa landu beharra funtsezkoa zaigu euskal munduan ere. Ez dugu zertan hasierako diseinu perfektu eta aratza —ideologiaren zordun dena— zuritu beharrik; *zer izan beharko zuen* ez da gure erronka, *zer izan zen* baizik. Iraganean, orainaldian bezala, dena ez da zuria edo beltza.

48. Ikusi *Egin* egunkaria: 1979-02-27.

49. Gonzalo Nardiz kontseilaria buru zutela, Alderdi Ekintzailearen zati bat leial izan zitzaion bukaera arte Leizaolaren Jaurilaritzari. 2008an, EAE/ANV zena legez kanpo utzi zuten ezker abertzalearekin bat egin zuelakoan. Eta berriki hil zaigun Valentin Solasgaistua, urte askoan alderdiaren idazkari nagusia izatetik PSEren zinegotzi izatera pasatu zen: gustu guztietarako saskinaskia. Transbertsalitate dei diezaiokegu? Hori izan al daiteke gutxieneko oinarri komuna? Nabarraldekin Anakleto Ortueta du aitzindari. Jon Juaristik, bere aldetik, Tomás Bilbao du eredu. Zer izan du Eusko Ekintzak hain jende ezberdina erakartzeko?

50. Ikusi Bachelard, 1984.

Bibliografia

- Agirrezkuenaga, J. (2005): "Konstituzio Foraletik (1808) Autonomia Estatutura (1919): 'Euskal estatua, batua eta hirukoitza'", *Argia*, **2.003** (2005-07-31).
- , (2006): "Katalanismo eta euskaltzaletasun politikoen arteko begiradak (1876-1919)", *Argia*, **2.034** (2006-04-02).
- Apaolaza, U. (2004): "1934, Gerra aurreko langileen altxamendua", *Argia*, **1.964** (2004-10-31).
- Auñamendi Entziklopedia.
- Bachelard, G. (1984): *La Filosofía del no*, Amorrortu Editores, Buenos Aires.
- De Pablo, S.; Mees, L. eta Rodríguez Ranz, J. A. (1999): "*El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*", Crítica, Bartzelona.
- EGIN egunkaria: 1979-02-27
- El Correo*: 2007-05-15.
- Lorenzo Espinosa, J. M. (1992): *Gudari una pasión útil: vida y obra de Eli Gallastegi (1892-1974)*, Txalaparta, Tafalla.
- Fusi, J.P. (2003): *La patria Lejana*, Taurus, Madril.
- Granja, José Luis de la (1986): *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1936*, CIS, Madril.
- Jimenez Jurio, J. M. (1997): *Navarra jamás dijo no al estatuto vasco*, Txalaparta, Tafalla.
- Renobales, E. (2005): *ANV. El otro nacionalismo*, Txalaparta, Tafalla.
- Stürtze, A. (1990): *Independenzia: 1936ko aukera galdua*, Gaia, Donostia.
- Vargas Alonso, F. M. (2002): "Los Batallones de los Nacionalismos Minoritarios en Euzkadi: ANV, EMB, STV (1936-1937)", Eusko Ikaskuntza, Bilbo, <www.euskomedia.org>.
- Wikipedia. 2012ko martxoa.

